

AKITANIAKO LIBURUGINTZAZ BILERAK PABEN

Juan San Martin

Centre Régional des Lettres d'Aquitaine erakundeak antolaturik egile eta liburugintzaren harremanezko bilerak egin ziren Paben 1983.eko Abenduaren 2, 3 eta 4ean.

Bigarren eguneko goiz guziaz Euskal Herriari eskainitako mahaiaurrekoa izan zen. Euskal liburuari bereziki. André Labarrere jauna, Akitaniako Le Conseil Municipal, Le Centre Régional des Lettres erakundearen eta Frantziako Parlamentoaren harremanetarako ministroaren ordezkari dena mahaiburu zela, honako hauek mintzatu ziren:

Jean Haritschelhar jauna, Baionako Euskal Museoko zuzendari eta Bordeleko Unibertsitatean irakasle dena, Euskal Herriko liburu inprimaketen historiaz mintzatu zen, XV. mendetik XIX.era bitartean.

Juan San Martin jauna, Euskaltzaindiko Jagon Sailburua azken urte hauetako euskarazko liburugintzaz.

Anjel Lertxundi jauna, Euskal Idazleen Elkartearen Buruak euskal autoreak eta sorketazko lanari buruz.

Jose Mari Velez de Mendizabal jauna, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Kontseilari Ordeak euskarazko liburugintzan daramaten politikaz.

Hitzaldi laburrok informaketazkoak izan ziren eta entzuleen artean elkarrizketak jarraitu zuten gai interesgarri honi buruz.

Egun berean, arratsaldean, liburu azoka ideki zen Euskal Herriko ordezkarien partaidetzaz eta euskarazko liburuei toki berezi bat eskainiz.